Laugarrena. Kontratuak gutxienez urtebete iraungo du eta gehienez bost, eta luzatu edo berritu ahalko da, gehieneko iraupena baino laburragoa hitzartu bada. Betiere, guztizko iraunaldia ez da bost urtetik gorakoa izango. Aldi baterako ezintasunak, amatasunak eta haurren adopzio edo harrerak kontratuaren indarraldia eten egingo dute.

b) Irakasle laguntzaile doktorea:

Lehena. Doktoreak kontratatuko dira. Kontratatu aurretik, haien jardueraren ebaluazio positiboa beharko da. Kalitatearen Ebaluaziorako eta Egiaztapenerako Agentzia Nazionalak egingo du ebaluazioa, edo bestela, autonomia erkidegoko legeriak zehazten duen kanpo-ebaluazioko organoak.

Bigarrena. Kontratuaren xedea irakaskuntza eta ikerketa lanak egitea izango da.

Hirugarrena. Kontratua aldi baterakoa izango da eta arduraldi osokoa.

Laugarrena. Kontratuak gutxienez urtebete iraungo du eta gehienez bost, eta luzatu edo berritu ahalko da, gehieneko iraupena baino laburragoa hitzartu bada. Betiere, guztizko iraunaldia ez da bost urtetik gorakoa izango. Nolanahi ere, kontratu honek eta a) letran aurreikusitakoak, batera, unibertsitate batean edo gehiagotan, ez dute zortzi urte baino gehiago iraungo. Aldi baterako ezintasunak, amatasunak eta haurren adopzio edo harrerak kontratuaren indarraldia eten egingo dute.

c) Irakasle kontratatu doktorea:

Lehena. Kalitatearen Ebaluaziorako eta Egiaztapenerako Agentzia Nazionalak edo autonomia erkidegoko legeetan zehaztutako kanpo-ebaluazioko organoak ebaluazio positiboa egiten dien doktoreak kontratatuko dira.

del órgano de evaluación externo que la ley de la Comunidad Autónoma determine.

2.º La finalidad del contrato será desarrollar, con plena capacidad docente e investigadora, tareas de docencia y de investigación, o prioritariamente de investigación.

3.º El contrato será de carácter indefinido y con dedicación a tiempo completo.

d) Profesor Asociado:

1.º El contrato se podrá celebrar con especialistas de reconocida competencia que acrediten ejercer su actividad profesional fuera del ámbito académico universitario.

2.º La finalidad del contrato será desarrollar tareas docentes mediante las que tales especialistas aporten a la Universidad sus conocimientos y experiencias profesionales.

3.º El contrato será de carácter temporal y con dedicación a tiempo parcial.

4.º La duración del contrato será trimestral, semestral o anual, y se podrá renovar por períodos de igual duración, siempre que se siga acreditando el ejercicio de la actividad profesional fuera del ámbito académico universitario.

e) Profesor Visitante:

1.º El contrato se podrá celebrar con profesores o investigadores de reconocido prestigio de otras universidades y centros de investigación, tanto españoles como extranjeros.

2.º La finalidad del contrato será desarrollar tareas docentes o investigadoras mediante las que los citados profesores aporten a la Universidad sus conocimientos y su experiencia docente e investigadora.

3.º El contrato será de carácter temporal con la duración que se acuerde entre las partes y dedicación a tiempo parcial o completo.

Artículo 84.

1. La contratación del personal docente e investigador se regulará en el correspondiente reglamento de contratación del profesorado, que será elaborado y aprobado por el Consejo de Gobierno, y contendrá las normas necesarias para la convocatoria y celebración de los concursos, así como los criterios generales de valoración.

2. En todo caso, las contrataciones que deben realizarse mediante concurso público se someterán a los siguientes extremos:

a) El concurso será convocado por la Universidad Pública de Navarra, de acuerdo con los cauces que reglamentariamente se establezcan. A los concursos se les dará la necesaria publicidad y su convocatoria será comunicada con suficiente antelación al Consejo de Universidades para su difusión en todas las universidades.

b) En la convocatoria de los concursos se hará constar la denominación de la plaza, el trabajo a realizar, la duración concreta y el régimen de dedicación de los contratos, los plazos, términos y fases de desarrollo de los concursos y cuantas otras condiciones determine el Consejo de Gobierno.

c) Las plazas de Profesor Contratado Doctor serán valoradas por comisiones de contratación

Bigarrena. Kontratuaren xedea izango da irakaskuntza eta ikerketa lanak edo, lehentasunez, ikerketa hutseko lanak egitea, irakaskuntzarako eta ikerkuntzarako gaitasun osoa izanik.

Hirugarrena. Kontratua mugagabea izango da eta arduraldi osokoa.

d) Irakasle elkartua:

Lehena. Gaitasun ezagutua duten adituak kontratatu ahalko dira, lanbide jarduera unibertsitateko esparru akademikotik kanpo dutela frogatzen badute.

Bigarrena. Kontratuaren xedea irakaslanak egitea izango da, espezialista horiek beren jakintza eta lanbide esperientziak ekar ditzaten Unibertsitatera.

Hirugarrena. Kontratua aldi baterakoa izango da eta arduraldi partzialekoa.

Laugarrena. Kontratuak hiru hilabete, sei hilabete edo urtebete iraungo du, eta berriro ahalko da beste horrenbesteko aldietarako, baldin eta unibertsitateko eremu akademikotik kanpoko lanbide jarduerak irauten badu.

e) Irakasle bisitaria:

Lehena. Entzute handiko irakasle eta ikertzaileak kontratatu ahalko dira, Espainiako edo atzerriko beste unibertsitate eta ikerketa zentro batzuetatik heldu badira.

Bigarrena. Kontratuaren xedea irakaslanak edo ikerlanak egitea izango da. Horien bitartez irakasleek beren ezagutzak eta irakaskuntzan nahiz ikerkuntzan duten esakarmenua ekarriko dituzte Unibertsitatera.

Hirugarrena. Kontratua aldi baterakoa izango da, eta arduraldi partzialekoa edo osokoa. Aldeek adosten duten iraunaldia izango du.

84. artikulua

1. Irakasle eta ikertzaileen kontratazioa irakasleak kontratatzeke erregelamenduan arautuko da, eta hori Gobernu Kontseiluak egin eta onetsiko du; deialdiak eta lehiaketak egiteko behar diren arauak eta baloraziorako irizpide orokorrak bilduko ditu.

2. Nolanahi ere, lehiaketa publikoaren bidez egin beharreko kontratazioetan hauek aginduko dute:

a) Nafarroako Unibertsitate Publikoak egingo du lehiaketarako deialdia, erregelamenduz ezartzen den moduan. Lehiaketek behar bezalako publicitatea izango dute, eta Unibertsitateen Kontseiluari, behar adina denbora lehenago, deialdiaren berri emango zaio, unibertsitate guztietan jakinaraz dezan.

b) Lehiaketen deialdian hauek azalduko dira: lanpostuaren izena, egin beharreko lana, kontratuen iraunaldi zehatza eta arduraldiaren araubidea, lehiaketen epeak, mugaegunak eta egitekoaldiak, eta Gobernu Kontseiluak erabakitzen duen beste edozein baldintza.

c) Irakasle kontratatu doktoreen lanpostuak baloratuko dituzten kontratazio batzordeak 80.4 artikuluan aurreikusitakoak bezala eratu eta osatuko dira. Gainerako lanpostuetarako, Gobernu Kontseiluak izendatuko ditu kontratazio batzordeak, eta kide hauek izango dituzte:

constituidas de la misma manera y con la misma composición que las previstas en el artículo 80.4. Para el resto de las plazas, actuarán como comisiones de contratación las designadas por el Consejo de Gobierno, que estarán formadas por:

1.º El Vicerrector competente o persona en quien delegue, que ejercerá las funciones de presidente.

2.º Dos profesores de los cuerpos docentes designados por el Consejo de Gobierno.

3.º Dos profesores de los cuerpos docentes designados por el Departamento, de acuerdo con lo dispuesto en el reglamento de contratación.

d) Todos los miembros de la comisión de contratación deberán tener plena competencia docente e investigadora al objeto del concurso, pertenecer a cuerpo de igual, equivalente o superior categoría al de la plaza objeto de concurso y reunir los demás requisitos legalmente establecidos.

e) La selección de personal se efectuará con respeto a los principios constitucionales de igualdad, mérito y capacidad. Se considerará mérito estar acreditado para participar en los concursos de acceso a los cuerpos docentes universitarios.

f) En todo caso, las decisiones incluirán una valoración individualizada de cada candidato, motivada y con asignación de puntuación numérica, desglosada por cada uno de los aspectos evaluados.

3. Existirá una comisión de reclamaciones formada por cinco profesores de los cuerpos docentes, de diversas áreas de conocimiento, con amplia experiencia docente e investigadora, elegidos por el Consejo de Gobierno. Su mandato será de cuatro años y se renovará parcialmente cada dos años. Las reclamaciones contra las propuestas de la comisión de contratación se formalizarán en el plazo y condiciones establecidas para las reclamaciones contra las propuestas de acceso a cuerpos docentes. En el caso de las plazas de profesor contratado doctor, actuará la Comisión de Reclamaciones establecida en el artículo 82.2.

Artículo 85.

El profesorado contratado percibirá el salario y complementos previstos en el Convenio Colectivo que les resulte aplicable y cualquier otro complemento previsto por la Comunidad Foral, según su dedicación, sin que en ningún caso excedan de los límites máximos que fije la Comunidad Foral de Navarra en uso de las competencias que le atribuye el artículo 55 de la Ley Orgánica de Universidades o, en su defecto, el Consejo de Gobierno.

Artículo 85.bis

La Universidad podrá nombrar a Profesores Eméritos entre profesores jubilados que hayan prestado servicios destacados a la Universidad.

Artículo 86.

La Universidad de acuerdo con la legislación vigente podrá, nombrar con carácter temporal, a tiempo parcial y sin otra remuneración que la que se derive de sus derechos de propiedad intelectual, colaboradores honoríficos, vinculados ocasionalmente a un determinado Departamento, y designados entre

1. Errektoreorde eskuduna edo berak eskuordetutako pertsona, batzordeburu ariko dena.

2. Irakasleen kidegoetako bi irakasle, Gobernu Kontseiluak izendatuak.

3. Irakasleen kidegoetako bi irakasle, Departamentuak izendatuak, kontratazioari buruzko erregelamenduan xedatutakoarekin bat.

d) Kontratazio batzordeko kide guztiek lehiaketaren xedeari dagokion irakasteko eta ikertzeko gaitasun osoa izango dute, eta lehiaketako lanpostuak duen kidegoaren kategoria bera, baliokidea edo goragokoa, eta legez ezarritako gainerako eskakizun guztiak beteko dituzte.

e) Langileak aukeratzean Konstituzioko berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak errespetatuko dira. Merezimenduztat joko da unibertsitateko irakasleen kidegoetan sartzeko lehiaketetan parte hartzeko baimendua izatea.

f) Nolanahi ere, erabakietan izangai bakoitzaren balioespena azalduko da, arrazoituta eta zenbakizko puntuazioarekin batera. Puntuazioan ebaluatutako alderdi guztiak zehaztuko dira.

3. Erreklamazio batzorde bat izango da, hainbat jakintza arlotako irakasle-kidegoetako bost irakaslek osatuko dutena. Irakasle horiek irakaslanetan eta ikerlanetan eskarmentu handikoak izango dira, eta Gobernu Kontseiluak hautatuko ditu. Lau urteko agintaldia izango dute, eta bi urtetik behin partzialki berrituko zaie. Kontratazio batzordearen proposamenen kontrako erreklamazioak irakasle-kidegoetan sartzeko proposamenen kontrako erreklamazioetarako ezarritako epean eta baldintzetan egingo dira. Irakasle kontratatu doktoreen lanpostuei dagokienez, 82.2 artikuluan ezarritako Erreklamazio Batzordea ariko da.

85. artikulua

Irakasle kontratatuek aplikagarri duten Hitzarmen Kolektiboan aurreikusitako lansaria eta gainerako osagarriak izango dituzte, arduraldiaren arabera, baina inoiz ere ez dituzte gaindituko Nafarroako Foru Erkidegoak ezarritako gehienezko mugak, Unibertsitatei buruzko 55. Artikuluak esleitzen dizkion eskumenak erabiliz, edo, horiek ezean, Gobernu Kontseiluak ezarritakoak.

85.bis artikulua

Unibertsitateak irakasle emeritu izendatu ahalko ditu Unibertsitateari zerbitzu nabarmenak egin dizkieten irakasle erretiratuak.

86. artikulua

Unibertsitateak, lege indardunen arabera, ohorezko lankideak izendatu ditzake aldi baterako, arduraldi ez-osoan eta jabetza intelektualaren ondoriozko saria besterik ez dutela. Sail jakin bati loturik egongo dira behin-behinean, eta haien kontura edo besteen kontura jarduera nagusi ordaindua duten adituen

especialistas que desarrollen una actividad principal remunerada, por cuenta propia o ajena, en las condiciones que determine reglamentariamente el Consejo de Gobierno.

Artículo 87.

Sin contenido.

Artículo 88.

1. El Rector tendrá exención total de obligación docente y de asistencia a los estudiantes.

2. Al acabar su mandato completo y con el fin de que actualicen sus conocimientos, el Rector, los Vicerrectores y el Secretario General serán dispensados, a petición propia, del ejercicio de sus tareas docentes por un plazo máximo de un año, en el caso del Rector, y de seis meses, para el resto. Durante ese tiempo tendrán derecho a percibir todas las retribuciones de la plaza que ocupen.

3. El Consejo de Gobierno, en el ámbito de sus competencias, acordará un régimen de dedicación a la gestión, en función de la actividad necesaria, para los miembros de los órganos de gobierno. No obstante, en el ámbito de sus competencias, el Rector, al designar otros cargos universitarios, podrá asimilar la dedicación y la retribución que lleve aparejada el desempeño del cargo a órganos de gobierno o cargos ya existentes en la normativa vigente.

4. Las personas que tengan la condición de órgano unipersonal de gobierno no podrán desempeñar otros cargos dentro de la Universidad Pública de Navarra.

Artículo 89.

1. La Universidad Pública de Navarra favorecerá la concesión de licencias por estudios al profesorado con dedicación a tiempo completo para realizar actividades docentes o investigadoras vinculadas a una universidad, institución o centro, nacional o extranjero, en el marco de las disponibilidades presupuestarias, y siempre que quede garantizada la docencia. En todo caso, la petición deberá ir acompañada por un informe del Consejo de Departamento.

2. El régimen de licencias previsto en este artículo será aprobado por el Consejo de Gobierno.

Artículo 90.

1. Los profesores doctores con vinculación permanente a la Universidad podrán disfrutar de un año sabático, con exención total de las obligaciones docentes, cada seis años de actividad ininterrumpida a tiempo completo en universidades públicas para realizar trabajos de investigación y de perfeccionamiento, de acuerdo con el procedimiento establecido por el Consejo de Gobierno. Durante dicho año sabático, los profesores tendrán derecho a percibir las retribuciones permitidas por la Ley.

2. La solicitud de año sabático, debidamente justificada, será aprobada por el Consejo de Gobierno, oído el Departamento.

3. La Universidad Pública de Navarra preverá en sus presupuestos una partida destinada a facilitar el disfrute de años sabáticos, sin perjuicio de las

artetik izendatuko dituzte, Gobernu Kontseiluak arautegiz erabakiko dituen baldintzetan.

87. artikulua

Edukirik gabe.

88. artikulua

1. Errektorea erabat salbuetsirik egongo da irakasteko eta ikasleei arreta emateko betebeharretatik.

2. Agintaldi osoa betetzen dutenean, errektorea, errektoreordeak eta idazkari nagusia, beren ezagutzak eguneratu ditzaten, irakaslanetik salbuetsiko dira, hala eskatzen badute eta, gehienez ere, urtebetez errektorea eta sei hilabetez gainerakoak. Bitarte horretan eskubidea izango dute beren lanpostuko ordainsari guztiak jasotzeko.

3. Gobernu Kontseiluak, bere eskumenen esparruan, kudeaketaz arduratzeko araubidea erabakiko du, egin beharreko jardueraren arabera, gobernu organoetako kideentzat. Hala ere, bere eskumenen esparruan, errektoreak, Unibertsitateko beste kargu batzuk izendatzean, parekatu egin ditzake kargu horietako arduraldia eta ordainsaria eta araudi indardunean lehendik dauden gobernu organo edo karguetakoak.

4. Kide bakarreko gobernu organo diren pertsonen ezin izango dute bestelako kargurik bete Nafarroako Unibertsitate Publikoan.

89. artikulua

1. Nafarroako Unibertsitate Publikoak ikasketa lizentziak ematea bultzatuko du arduraldi osoa duten irakasleek irakaslanak edo ikerlanak egiteko, betiere, lan horiek Estatuko nahiz atzerriko unibertsitate, instituzio edo ikastetxe batekin lotura badute, aurrekontuen horniduraren arabera eta irakaskuntza bermatzen bada. Nolanahi ere, eskaerarekin batera Saileko Kontseiluaren txostena ere aurkeztuko da.

2. Gobernu Kontseiluak onetsiko du artikulua honetan aurreikusten den lizentzien araubidea.

90. artikulua

1. Unibertsitatearekin lotura iraunkorra duten irakasle doktoreek, unibertsitate publikoetan lanaldi osoko jardueran sei urtez etengabe aritutakoan, irakaskuntzako eginbeharretatik erabat salbuetsita egoteko urte sabatikoa har dezakete, ikerlanak eta hobekuntza lanak egiteko, eta hori Gobernu Kontseiluak finkatutako prozedurari jarraikiz egingo dute. Urte sabatiko horretan legeak onartzen dituen lantsariak jasoko dituzte.

2. Urte sabatikoa hartzeko eskaera, behar bezala justifikatua, Gobernu Kontseiluak onetsiko du Sailari entzun ondoren.

3. Nafarroako Unibertsitate Publikoak irakasleek urte sabatikoak har ditzaten, kontu-sail bat aurreikusiko du aurrekontuetan, Gizarte Kontseiluaren eskumenak

competencias del Consejo Social.

Artículo 91.

La concesión de licencias por estudios o de año sabático no comportará en ningún caso un incremento de la plantilla de profesorado con vinculación permanente.

Artículo 92.

El Rector podrá conceder comisiones de servicios a profesores de los cuerpos docentes universitarios por un curso académico, oído el Departamento al que pertenezcan. El número máximo de renovaciones de dichas comisiones será de dos, previo informe favorable del Departamento.

Artículo 93.

1. Los Departamentos, en atención a las necesidades de investigación y de acuerdo con las normas que establezca el Consejo de Gobierno, podrán eximir parcial o totalmente de las obligaciones docentes a parte de su profesorado con vinculación permanente, por un tiempo máximo de un año. En estos supuestos, los Departamentos deberán arbitrar las sustituciones pertinentes.

2. Para hacer efectivas dichas sustituciones, los Departamentos, previo acuerdo de su Consejo, podrán incrementar las obligaciones docentes de parte de su profesorado con vinculación permanente, con dedicación a tiempo completo, sin que en ningún caso dicho incremento pueda exceder de un tercio de horas lectivas semanales de un profesor titular de universidad.

Artículo 94.

Sin contenido.

Artículo 95.

El Consejo de Gobierno aprobará la normativa reguladora de la provisión urgente y temporal de plazas como consecuencia de situaciones sobrevenidas, garantizando adecuadamente la cobertura de las necesidades docentes producidas por tal causa.

CAPÍTULO II Estudiantes

Artículo 96.

1. Son estudiantes de la Universidad Pública de Navarra todas las personas que estén matriculadas en la misma. A efectos de participación y representación en los distintos órganos de la Universidad se considerarán estudiantes únicamente aquellos matriculados en estudios oficiales conducentes a la obtención de títulos oficiales con validez en todo el territorio nacional.

2. Los estudiantes que cursen otros estudios, distintos de los mencionados en el apartado primero del presente artículo, tendrán derecho de participación y representación en los órganos de la Universidad que así se determinen, en los términos y con los requisitos que establezca la normativa que a

galarazi gabe.

91. artikulua

Ikasketak egiteko edo urte sabatikoa hartzeko baimena emateak inoiz ez du ekarriko lotura iraunkorra duten irakasleen plantilla handitzea.

92. artikulua

Errektoreak unibertsitate irakaskidegoetako irakasleei zerbitzu-eginkizunak betetzeko baimena eman ahal izango die, ikasturte baterako, bakoitzari dagokion sailari entzun ondoren. Zerbitzu-eginkizun horiek gehenez ere bi aldiz berritu ahal izango dira, sailak aldeko txostena egin ondoren.

93. artikulua

1. Ikerketarako beharrei begira eta Gobernu Kontseiluak finkatzen dituen arauekin bat etorritz, sailek lotura iraunkorra duten irakasleak irakaskuntza-betekizunetatik salbuetsi ahalko dituzte, erabat edo zati batean, eta gehenez ere, urtebetez. Horrelakoetan, sailek behar diren ordezkioak jartzeko neurriak hartuko dituzte.

2. Ordezkozta horiek betetzeko, sailek, bakoitzari dagokion Kontseiluari entzun ondoren, lotura iraunkorra eta arduraldi osoa duten irakasleetako batzuei irakaskuntza-betekizun gehiago eman diezazkiekete, baina inoiz ere ez diete emango unibertsitateko irakasle titular batek astean dituen irakastorduen herena baino gehiago.

94. artikulua

Edukirik gabe.

95. artikulua

Gobernu Kontseiluak agertutako egoeren ondorioz lanpostuak berehalakoan eta aldi baterako betetzeko arautegi erregulatzailerako onetsiko du, eta behar bezala bermatuko du gorabehera horientatik sortutako irakaskuntza beharrak beteko direla.

II. KAPITULUA Ikasleak

96. artikulua

1. Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikasleak dira bertan matrikulatuta dauden guztiak. Unibertsitatearen organoetan parte hartu eta ordezkaritza betetzeari begira, ikasle izango dira soilik lurralde nazional osoan ofizialak eta baliodunak diren tituluak erdiesteko ikasketetan matrikulatuta daudenak.

2. Artikulu honetako lehen idatz-zatian aipatutako ikasketak ez, beste batzuk egiten dituzten ikasleek eskubidea izango dute zehaztuko diren Unibertsitateko organoetan parte hartzeko eta ordezkaritza izateko, Gobernu Kontseiluak horretarako onetsiko duen araudian ezartzen diren baldintzekin.

tal efecto apruebe el Consejo de Gobierno.

3. El Consejo de Gobierno podrá aprobar el régimen aplicable a otras situaciones de estudiantes.

Artículo 97.

Son derechos de los estudiantes de la Universidad Pública de Navarra:

- a)** Recibir una formación integral y una enseñanza crítica de calidad, rigurosa, actualizada y didácticamente adecuada.
- b)** Conocer, con anterioridad a su matriculación, la oferta y programación docente de cada titulación, los programas y horarios de las asignaturas, las fechas de las convocatorias oficiales, así como los criterios generales de evaluación.
- c)** La publicidad de las normas de la Universidad que regulen la verificación de los conocimientos de los estudiantes y la publicidad y la revisión de las calificaciones, mediante un procedimiento eficaz y particularizado, con anterioridad a su incorporación a las actas oficiales.
- d)** Disponer de unas instalaciones adecuadas que permitan el normal desarrollo de los estudios.
- e)** Participar en las actividades extraacadémicas orientadas a la formación en valores, la cultura, el deporte y la convivencia social, así como también al desarrollo de su capacidad crítica.
- f)** Participar en los órganos de representación y gobierno de la Universidad, en los términos establecidos en los presentes Estatutos.
- g)** Tener acceso a la información sobre becas y ayudas al estudio, así como a aquellos extremos sobre los cuales tengan un interés directo, con arreglo al principio de transparencia.
- h)** Disponer de los medios que hagan posible el ejercicio efectivo de su derecho de asociación, dentro de las disponibilidades de la Universidad.
- i)** Participar en los procesos de evaluación de la enseñanza.

Artículo 98.

Son deberes de los estudiantes de la Universidad Pública de Navarra:

- a)** Realizar el trabajo académico propio de su condición universitaria con el suficiente aprovechamiento.
- b)** Respetar el patrimonio de la Universidad, así como hacer un correcto uso de sus instalaciones, bienes y recursos.
- c)** Ejercer responsablemente los cargos para los cuales hayan sido elegidos o designados.
- d)** Cooperar con el resto de la comunidad universitaria en el buen funcionamiento de la Universidad y en la mejora de sus servicios.

Artículo 99.

1. El Consejo de Estudiantes, que dependerá orgánicamente del Vicerrector competente, es el órgano de deliberación, consulta y representación de los estudiantes de la Universidad.

2. El Consejo de Estudiantes estará compuesto por los representantes de los estudiantes en el Claustro Universitario y por los delegados de grupo de la Universidad.

3. Gubernu Kontseiluak ikasleen beste egoera batzuei aplikatu beharreko araubidea onetsi ahalko du.

97. artikulua

Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikasleen eskubideak dira:

- a)** Prestakuntza osoa jasotzea eta kalitatezko irakaskuntza kritikoa, zehatza, eguneratua eta didaktikaren aldetik egokia.
- b)** Matrikula egin aurretik, titulazio bakoitzeko eskaintza eta irakaskuntza programazioaren berri izatea, eta irakasgaien programak eta orduak, deialdi ofizialen egunak eta ebaluazio irizpide orokorrak ezagutzea.
- c)** Ikasleek ikasitako en egiaztapena arautuko duten Unibertsitatearen arauak jakinaraztea, bai eta kalifikazioak eta horien berrikuspenera ere, prozedura eraginkor eta banakakoa erabiliz, eta akta ofizialetan datuak jaso aurretik.
- d)** Ikasketak modu egokian garatzeko behar bezalako eraikuntzak beren esku izatea.
- e)** Eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzea, balioen, kulturaren, kirolaren eta gizarte elkarbizitzaren arloetan hezteko, eta gaitasun kritikoa garatzeko.
- f)** Unibertsitatearen ordezkari eta gobernu organoetan parte hartzea, Estatutu hauetan ezarritako moduan.
- g)** Bekei eta ikasteko laguntzei buruzko argibideak edukitzeko modua izatea, baita zuzeneko interesa izanda, gai jakin batzuei buruzkoak ere, gardentasun printzipioari jarraikiz.
- h)** Elkartzeko eskubidea erabilgarri egiten duten baliabideak beren esku izatea, Unibertsitatearen ahalmenen arabera.
- i)** Irakaskuntza ebaluatzeko prozesuetan parte hartzea.

98. artikulua

Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikasleek egin behar hauek dituzte:

- a)** Unibertsitate ikasle diren aldetik dagokien ikaslana egitea, nahikoa probetxugarri izateko.
- b)** Unibertsitatearen ondareari begirunea izatea, eta haren instalazio, ondasun eta baliabideak zuzen erabiltzea.
- c)** Zein kargutarako izan diren hautatuak edo izendatuak, kargu horiek arduraz betetzea.
- d)** Unibertsitateko komunitateko gainerakoekin elkarlanean aritzea Unibertsitateak ongi funtzionatu dezan eta zerbitzuak hobetu ditzan.

99. artikulua

1. Ikasleen Kontseilua, Errektoreorde eskudunaren mende egongo dena, hau da: Unibertsitateko ikasleek eztabaidatzeko, kontsultarako eta ordezkarietarako duten organoa.

2. Ikasleen Kontseilua Unibertsitateko Klaustroan ikasleen ordezkari direnek osatuko dute eta Unibertsitatean diren taldeko ordezkariak.

3. Ikasleen Kontseiluak, gutxienez ere,

3. El Consejo de Estudiantes dispondrá, como mínimo, de la figura de Presidente y de Secretario, así como de una Junta Permanente.

4. El Consejo se reunirá, como mínimo, una vez al año en sesión ordinaria para elegir a su Presidente y a los miembros de la Junta Permanente.

Artículo 100.

1. El Presidente del Consejo de Estudiantes, en el ámbito de sus competencias, es el máximo representante de los estudiantes ante cualquier instancia. El Secretario del Consejo tendrá la función de auxiliar al Presidente, así como la de ser depositario de las actas de las sesiones.

2. La duración del mandato de los representantes incluidos en el presente artículo será de un curso académico. Todos ellos podrán ser removidos, a propuesta de un tercio del mismo colectivo que los eligió, por mayoría absoluta de los presentes en sesión convocada a tal efecto.

Artículo 101.

La Universidad asignará al Consejo de Estudiantes, dentro de sus posibilidades, los medios necesarios para su correcto funcionamiento.

Artículo 102.

Corresponden al Consejo de Estudiantes las siguientes competencias:

a) Elaborar el reglamento que regule su constitución y su funcionamiento, que se someterá a aprobación por el Consejo de Gobierno.

b) Canalizar, discutir, proponer y, en su caso, llevar a efecto iniciativas emanadas de los estudiantes de la Universidad, de acuerdo con los cauces universitarios que se determinen en el reglamento mencionado en la letra anterior.

c) Recabar la información que afecte a la comunidad universitaria y transmitirla a los estudiantes.

d) Administrar los recursos y medios que le fueran asignados.

e) Participar en los procesos de evaluación de los servicios de la Universidad.

f) Elegir a sus representantes en la Comisión de Calidad.

g) Elegir, conforme a lo que establezca su reglamento, a los estudiantes que formarán parte de las Juntas de Centro y de los Consejos de Departamento.

h) Elegir, conforme a lo que establezca su reglamento, a los representantes del Consejo de Estudiantes que sean requeridos por otras instituciones u organismos.

Artículo 103.

1. Cada uno de los grupos de la Universidad Pública de Navarra dispondrá de un Delegado y, como máximo, dos Subdelegados.

2. La forma de elección de los Delegados y Subdelegados vendrá determinada en el reglamento que apruebe el Consejo de Gobierno oído el Consejo de Estudiantes.

kontseiluburua eta idazkaria izango ditu eta Batzorde Iraunkor bat.

4. Kontseilua, gutxienez ere, urtean behin ohiko bilera bat egingo du kontseiluburua eta Batzorde Iraunkorreko kideak hautatzeko.

100. artikulua

1. Ikasleen Kontseiluko burua, bere eskumenen esparruan, ikasleen ordezkari gorenaren edozein erakunderen aurrean. Kontseiluko Idazkariak kontseiluburuari laguntzeko eginkizuna izango du, eta bileretako aktak gordetzeko.

2. Artikulu honetan aipatzen diren ordezkarien agintaldia ikasturte batekoa izango da. Guztiak ere aldatu egin daitezke, hautatu zituen taldeko herenak hala proposatuta, horretarako deitutako bileran daudenen gehiengo absolutuaz.

101. artikulua

Unibertsitateak, bere ahalmenen arabera, funtzionamendu zuzenerako behar dituen baliabideak emango dizkio Ikasleen Kontseiluari.

102. artikulua

Ikasleen Kontseiluak eskumen hauek dauzka:

a) Osaera eta funtzionamendua arautzeko erregelamendua egitea, gero Gobernu Kontseiluari onesteko emango zaiona.

b) Bideratu, eztabaidatu, proposatu, eta, hala behar izanez gero, gauzatzea Unibertsitateko ikasleengandik sortutako ekimenak, aurreko letran aipatutako arautegian erabakitako unibertsitate bideetatik.

c) Unibertsitate komunitatearengan eragina duen informazioa jaso eta ikasleei ematea.

d) Esleitzen zaizkion baliabide eta bitartekoak administratzea.

e) Unibertsitatearen zerbitzuei dagozkien ebaluazio prozesuetan parte hartzea.

f) Kalitate Batzordean ordezkariak hautatzea.

g) Bere araudiak ezartzen duenari jarraituz, ikastegietako batzordeetan eta sailtako kontseiluetan parte hartuko duten ikasleak hautatzea.

h) Arautegiak ezartzen duenaren arabera, beste erakunde edo organismoek eskatzen dituztenean, Ikasleen Kontseiluko ordezkariak hautatzea.

103. artikulua

1. Nafarroako Unibertsitate Publikoko talde bakoitzak ordezkari bat eta, gehienez ere, bi ordezkariorde izango ditu.

2. Gobernu Kontseiluak onetsiko duen arautegian erabakiko da ordezkariak eta ordezkariordeak hautatzeko modua, Ikasleen Kontseiluari entzunda.

Artículo 104.

1. Son funciones del Delegado de Grupo:

- a) Representar a los estudiantes de su grupo en el Consejo de Estudiantes, en los Consejos de Facultad o Escuela y, en caso de que fuera elegido para ello, en las Juntas de Facultad o Escuela, y en los Consejos de Departamento.
 - b) Informar y transmitir aquellas comunicaciones necesarias para la adecuada relación entre estudiantes y cualquiera de los órganos de la Universidad Pública de Navarra.
 - c) Remitir a los representantes de los estudiantes en los órganos de gobierno y representación de la Universidad las propuestas, peticiones y quejas que deban ser trasladadas a los órganos de gobierno.
 - d) Exponer ante el profesorado las propuestas, peticiones y quejas de los estudiantes de su grupo.
 - e) Convocar a los estudiantes de su grupo tantas veces como consideren oportuno para el correcto cumplimiento de su función, respetando al máximo la programación docente.
 - f) Acudir a las reuniones que se les convoque en aras a facilitar el ejercicio de las funciones de su cargo.
 - g) Contribuir al desarrollo y calidad de los fines que la Universidad tiene legalmente encomendados.
 - h) Cualesquiera otras funciones necesarias para el cumplimiento de su mandato representativo.
2. El Delegado de Grupo, de acuerdo con la normativa que lo regule, podrá trasladar a los Subdelegados las funciones recogidas en las letras d) a h) del presente artículo.

104. artikulua

1. Hauek dira taldeko ordezkariaren eginkizunak:

- a) Dagokien taldeko ikasleen ordezkariak izatea Ikasleen Kontseiluan, Fakultate edo Eskolako Kontseiluetan, eta, horretarako hautatuak izan badira, Fakultate edo Eskolako Batzordeetan eta Saileko Kontseiluetan.
 - b) Behar diren adierazpenak egin eta helaraztea, ikasleen eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko edozein organoren arteko harremanak behar bezalakoak izan daitezen.
 - c) Unibertsitateko gobernu eta ordezkari organoetan ikasleen ordezkari direnei organo horietara eraman beharreko proposamen, eskaera eta kexak eramatea.
 - d) Dagokien talde edo ikasmilako ikasleen proposamenak, eskaerak eta kexak irakasleei jakinaraztea.
 - e) Eginkizuna zuzen betetzeko, egoki iruditzen zaien guztietan, ikasmilla edo taldeko ikasleei dei egitea, irakaskuntzako programazioa ahal den gehiena errespetatuz
 - f) Karguko eginkizunak errazago egiten laguntzeko asmoz, bileretara joateko dei egiten zaien guztietan, haietara joatea.
 - g) Unibertsitateak legez dauzkan helburuak garatzen eta horien kalitatea hobetzen laguntzea.
 - h) Ordezkaritza aldian behar bezala aritzeko beharrezko dituen beste edozein eginkizun betetzea.
2. Taldeko ordezkariak, arautzen duen arautegiari jarraikiz, artikulua honetako d) letratik h)-ra bitartekoetan diren eginkizunak ordezkariordeei eman ahal izango dizkie.

CAPÍTULO III

Personal de administración y servicios

Artículo 105.

1. El personal de administración y servicios de la Universidad Pública de Navarra es el sector de la comunidad universitaria al que corresponde el ejercicio de las funciones técnicas, administrativas y de gestión de la Universidad, así como el asesoramiento y asistencia en el desarrollo de las funciones de la Universidad, dentro del ámbito de sus competencias.
2. El personal de administración y servicios de la Universidad Pública de Navarra está integrado por los funcionarios de la misma y por el personal en régimen de contratación laboral o administrativa, así como por el personal de otras Administraciones Públicas que presten sus servicios en la Universidad Pública de Navarra en las situaciones previstas por la legislación vigente.

Artículo 106.

1. El personal funcionario de administración y servicios se regirá por la legislación sobre función pública de la Comunidad Foral de Navarra, sin perjuicio de las peculiaridades que se establezcan en el ámbito de la Universidad.
2. El personal laboral de administración y servicios se

III. KAPITULUA.

Administrazio eta Zerbitzuetako Langileak

105. artikulua

1. Nafarroako Unibertsitate Publikoaren administrazio eta zerbitzuetako langileek Unibertsitateko komunitatean eginkizun tekniko, administratibo eta kudeatzekoak bere gain hartzen dituen sektorea osatzen dute, baita aholku eta laguntza emateko lana ere Unibertsitatearen eginkizunak garatzean, betiere, beren eskumenen esparruan.
2. Nafarroako Unibertsitate Publikoaren administrazio eta zerbitzuetako langileria bertako funtzionarioek eta lan edo administraziozko kontratazio-erregimenean diharduten langileek osatzen dute, bai eta beste Administrazio Publikoetako langileek ere, betiere, lege indardunek aurreikusitako eran betetzen badituzte beren eginkizunak, Nafarroako Unibertsitate Publikoan.

106. artikulua

1. Administrazio eta zerbitzuetako langile funtzionarioengan Nafarroako Foru Erkidegoko funtzio publikoari buruzko legeek aginduko dute, Unibertsitatearen esparruan ezarriko diren berezitasunak galarazi gabe.
2. Administrazio eta zerbitzuetako lan-

regirá por la legislación laboral y por el convenio o convenios colectivos que le sean de aplicación.

3. En todo cuanto permita la legislación vigente, el régimen y condiciones de trabajo del personal laboral de la Universidad se tenderá a equiparar al del personal laboral de las Administraciones Públicas de Navarra, sin perjuicio de las peculiaridades propias de la Universidad.

Artículo 107.

Son derechos del personal de administración y servicios de la Universidad Pública de Navarra, además de otros reconocidos por la ley:

- a)** Participar en los órganos de gobierno y de representación de la Universidad de acuerdo con lo dispuesto en los presentes Estatutos.
- b)** Determinar con la Universidad, a través de sus órganos de representación, sus condiciones de trabajo.
- c)** Conocer las funciones asignadas a su puesto de trabajo y disponer de la información y de los medios adecuados para desarrollar las mismas.
- d)** La formación, perfeccionamiento y promoción personal en el ámbito de su trabajo.
- e)** Utilizar las instalaciones y los servicios de la Universidad de acuerdo con sus finalidades y las normas que los regulan.

Artículo 108.

Son deberes del personal de administración y servicios de la Universidad Pública de Navarra, además de los establecidos por la ley:

- a)** Ejercer eficazmente las funciones asignadas a su puesto de trabajo y aquellas otras que se deriven de su relación con la Universidad.
- b)** Formarse y perfeccionarse para el desempeño de las funciones encomendadas, mediante la participación en las actividades orientadas a tales fines.
- c)** Contribuir a la mejora de la Universidad Pública de Navarra, al cumplimiento de sus fines y a su mejor funcionamiento como servicio público.
- d)** Respetar el patrimonio de la Universidad y velar por su conservación.
- e)** Ejercer responsablemente los cargos para los cuales hayan sido designados o elegidos.

Artículo 109.

1. Los funcionarios que presten servicios en la Universidad Pública de Navarra se estructurarán conforme a los diversos niveles de titulación exigida por la legislación foral de funcionarios para el ingreso en los mismos.

2. El personal laboral se estructurará en grupos profesionales y denominaciones de acuerdo con lo establecido en la normativa laboral y en sus convenios colectivos.

3. Ningún miembro del personal de administración y servicios podrá ser obligado a desempeñar funciones que no sean propias de su nivel o grupo profesional. Cuando se encarguen responsabilidades correspondientes a un puesto de trabajo de categoría

kontratatuengan lan-legeek eta aplikagarri duten hitzarmen kolektiboak edo hitzarmen kolektiboek aginduko dute.

3. Lege indardunek zilegitzen duten neurrian, Unibertsitateko langile kontratatuen erregimena eta lan baldintzak Nafarroako Administrazio Publikoetan langile kontratatuek dituzten baldintzekin berdinduko dira, Unibertsitateak dauzkan berezitasunak galarazi gabe.

107. artikulua

Nafarroako Unibertsitate Publikoko administrazio eta zerbitzuetako langileek, lege indardunek onartutako beste batzuez gainera, honako eskubide hauek dituzte:

- a)** Unibertsitatearen gobernu eta ordezkaritza organoetan parte hartzea, Estatutu hauetan xedatutakoari jarraikiz.
- b)** Unibertsitatearekin batera erabakitzea, bere ordezkaritza organoen bidez, zein lan baldintzak izango dituzten.
- c)** Lanpostuari esleitutako eginkizunak zein diren jakitea, eta horiek egiteko informazioa eta baliabide egokiak edukitzea.
- d)** Nork bere prestakuntza, hobekuntza eta sustapena jasotzea, bere lanaren esparruan.
- e)** Unibertsitatearen eraikuntza eta zerbitzuak erabiltzea, hauen xedeei eta erregulatzen dituzten arauei jarraikiz.

108. artikulua

Nafarroako Unibertsitate Publikoko administrazio eta zerbitzuetako langileek, indarrean diren legeek ezarritakoez gain, honako eginbehar hauek dituzte:

- a)** Beren lanpostuari esleituriko eginkizunak eta Unibertsitatearekin duten harremana dela medio sortzen diren beste horiek ere betetzea.
- b)** Emandako eginkizunak betetzeko prestatzea eta hobetzea, horretarako bideratutako jardueretan parte hartuz.
- c)** Nafarroako Unibertsitate Publikoaren hobekuntzarako, haren xedek burutzeko eta zerbitzu publikoa den aldetik haren funtzionamendua hobetzeko beren esku dagoena egitea.
- d)** Unibertsitatearen ondareari begirunea izatea eta bera zaintzea.
- e)** Zein kargutarako izan diren hautatuak edo izendatuak, kargu horiek arduraz betetzea.

109. artikulua

1. Nafarroako Unibertsitate Publikoan zerbitzu ematen duten funtzionarioak titulazio mailetan egituratuko dira, funtzionarioei buruzko foru legeetan haietan sartzeko eskatzen diren titulazio mailen arabera.

2. Lan-kontratuko langileek lanbide talde eta izendapenetan egituratuko dira, lan-arautegietan eta haien Hitzarmen Kolektiboetan xedatutakoaren arabera.

3. Ez da zilegi izango administrazio eta zerbitzuetako langileak beren lanpostuei ez dagokien eginkizunik egitera behartzea.

Maila handiagoko lanpostu bati dagozkion eginkizunak ematen zaizkienean, eginkizun eta

superior, la asignación de nuevas funciones y retribuciones se someterá a lo dispuesto en la legislación vigente.

4. La Universidad Pública de Navarra elaborará su propio documento de estructura de plantilla de acuerdo con el nivel de titulación exigida para el ingreso en los distintos grupos profesionales y denominaciones, que serán equiparables por analogía de sus funciones a las que existan o se creen en las Administraciones Públicas.

Artículo 110.

1. La aprobación de la relación de puestos de trabajo corresponde al Consejo de Gobierno a propuesta del Gerente quien, previa negociación con los órganos de representación, la elaborará en estrecha relación con las necesidades docentes, investigadoras y de gestión manifestadas por los Departamentos, Centros y Unidades administrativas de la Universidad.

2. El documento de estructura de la plantilla señalará como mínimo:

- a)** Las plazas reservadas a funcionarios y a contratados laborales.
- b)** La unidad orgánica a la que se adscriben los puestos de trabajo.
- c)** La denominación de los puestos.

d) El número de puestos de idéntica denominación.

e) Los niveles jerárquicos y el grado de dificultad y responsabilidad en el que están clasificados.

f) Las funciones del puesto de trabajo.

g) La dedicación

h) Las retribuciones complementarias que tenga asignado cada puesto.

Artículo 111.

1. La Universidad Pública de Navarra seleccionará, de acuerdo con su autonomía, su propio Personal de Administración y Servicios, garantizando los principios de igualdad, mérito y capacidad, así como el de publicidad.

2. La convocatoria de las pruebas selectivas de las plazas vacantes que figuren en la relación de puestos de trabajo será realizada, sin dilación injustificada, por el Rector, quien ordenará su publicación en el Boletín Oficial del Estado y en el Boletín Oficial de Navarra.

Artículo 112.

1. Los tribunales de selección de plazas pertenecientes a la estructura de funcionarios, cuyas actuaciones y resoluciones serán públicas, estarán compuestos por cinco miembros distribuidos de la siguiente forma:

a) El Rector o persona en quien delegue, que la presidirá.

b) El Gerente o persona en quien delegue.

c) Un miembro de las administraciones públicas radicadas en la Comunidad Foral de Navarra o de otras universidades públicas del Estado.

d) Un miembro del personal de administración y servicios de la Universidad Pública de Navarra designado por la Junta de Personal de Administración y Servicios, que actuará como secretario del tribunal.

lansari berriak esleitzeko, lege indardunetan xedatutakoari jarraituko zaio.

4. Nafarroako Unibertsitate Publikoak plantilla egituratzeko bere dokumentua egingo du, lanbide talde eta izendapenetan sartzeko eskatzen diren titulazio mailen arabera, eta, eginkizunen antzekotasunari begira, Administrazio Publikoetan dauden edo sortzen direnen baliokideak izango dira.

110. artikulua

